

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021**

**EKONOMIA ETA OGASUNA**

1. Enpresa txikiei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko 2021eko programa, COVID-19aren eragin ekonomikoari erantzuteko .....2
2. Autonomo (enpresari eta profesional) eta enpresentzako diru-laguntza, COVID-19aren aurrean, sektore pribatuaren kaudimenean eta zorren murrizketan laguntzeko.....6
3. “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” Argazki lehiaketaren X. edizioa .....9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enpresa txikiei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko 2021eko programa, COVID-19aren eragin ekonomikoari erantzuteko**

2.- Araua

106/2021 DEKRETUA, martxoaren 9koa, enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako 2021eko finantza-laguntzaren programa garatzen duena, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko.

AGINDUA, 2021eko martxoaren 9koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baita COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programaren deialdia, martxoaren 9ko 106/2021 Dekretuan arautua.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

106/2021 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/03/2101518e.shtml>

AGINDUA, 2021eko martxoaren 9koa: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/03/2101531e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programaren helburua da osasun-krisiak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sarean aurreikusitako kalteak arintzea, finantza-laguntzako bi eremutan. Lehenengo jardun-ildoan, EAEko ETEei finantzaketa erraztea xede duena, finantza-baldintza abantailatsuetan mailegu berriak emanez, eta bigarrean, indarrean dauden maileguen berritze aldarazlea erraztea xede duena. Mailegu horiek finantza-erakundeekin formalizatuko dira 2020ko dirulaguntzen programaren babesean, eta formalizatutako eragiketen epea 5 urtetik 8 urtera luzatzeko aukera ematen du, urtebeteko aukerako gabealdiarekin.

Finantza Laguntzaren Programak gehienez ere 500 milioi euroko zuzkidura du Elkargi EBBk abalaturako finantza-erakundeekin formalizatu beharreko maileguetan, lehenengo deialdian 250 milioi euroko zenbatekoarekin. Horren helburua da aipaturako eragile ekonomikoen kolektiboaren 6 hilabeteko likidezia- eta zirkulazialearen finantzaketa-premia berriei erantzutea, euskal enpresa-sarea kaltetu ez dadin, horrek ondorio oso negatiboak izango bailituzke enpleguan.

Finantzaketa-lerro horrek aipaturako enpresen eta pertsona autonomoen egitura-gastu finkoei estaldura ematea ahalbidetzen du, enpresa-sarean duten garrantzia, produkzio-jarduera osoan dituzten inplikazioak eta handizkako finantzaketa-merkatuetara edo kreditu-erakundeen lerro tradizionaletara sartzeko gaitasun erlatibo txikiagoa kontuan hartuta.



Maileguen zenbatekoa: 5.000 eurotik 1.000.000 eurora bitarte, enpresa txiki eta ertainentzat.

Tarte horren barruan, 5.000 eurotik 25.000 eurora bitarteko maileguetarako lerro espezifiko bat gaitzen da, COVID-19ak eragindako pandemiak gehien zigortu dituen sektoreetako enpresa txiki eta ertainak eta enpresaburu autonomoak finantzatzeko. Ildo horren ondorioz, zenbait kasutan, negozioak itxi egin dira eta/edo salmentak edo diru-sarrerak nabarmen jaitsi dira. Banakako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat, 5.000 eurotik 100.000 eurora bitarte.

Interes-tasak: Euribor + % 0,75 (Eusko Jaurlaritzak % 100ean diruz lagundua).

Mailegu-eragiketen epea: 8 urte (2 urteko aukerako gabealdia).

Finantza-lankidetzako hitzarmenak Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten ia finantza-erakunde guztiekin. (14 finantza-erakunde).

Emandako abalak (EBren Covid Aldi Baterako Esparruaren esparruan):

Elkargi EBBk % 100ean abalatutako maileguak Elkargi EBBk, halaber, EAeko Administrazio Publikoaren % 75erainoko birfidantzamendua du, eta beharrezkoa izanez gero, Espainiako Birfidantzamendu Konpainiaren birfidantzamendua osatzen du. CERSA

Formalizazio-komisioa eta azterketa-komisioa: formalizatutako abalaren % 0,25, behin bakarrik.

Abal-komisioa: % 0,75 urtean. (Eusko Jaurlaritzak % 50ean diruz lagundua).

Berritze aldatzaileetan ez da formalizazio-kosturik aplikatzen, eta gabezia soilik handitzen duten maileguen interes-tasari eusten zaio, finantzaketa berrirako hitzartutako interes-tasa epea luzatzen duten maileguetarako aplikatuta.

Abalen eskaerak eta onarpena Elkargi EBB erakunde laguntzailearen bidez egin dira, eta finantza-lankidetzako hitzarmen berri bat sinatu da erakunde horrekin, eskabideak kudeatzeko.

##### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Dirulaguntzen programak aukera eman du 2021ean 652 enpresaren finantzaketa-eskaerari erantzuteko, 80 milioi euroko finantzaketa-bolumenerako. Finantzaketa, batez beste, 122.000 eurokoa izan da enpresa bakoitzeko.

2020an formalizatutako maileguen zenbateko osotik, 2021ean berritze aldatzailea izan dute 4.647 maileguk; guztira, 478 milioi euro, hau da, aurretik emandako finantzaketaren % 71.

2021ean baimendutako maileguen % 55 350.000 €-tik beherakoak izan dira. 1,5 milioi euro bideratu dira enpresaburu autonomoak finantzatzera 96 mailegutarako, hau da, 2021ean formalizatutako guztizkoaren % 2 inguru.



Industria-sektoreak emandako finantzaketaren % 34 hartu du, ondoren merkataritza-sektoreak % 23 eta zerbitzu-sektoreak % 18. Ostalaritza emandako finantzaketa osoaren % 6 izan da.

2020an eta 2021ean, COVID-19aren eragina arintzeko 2020-2021 Programaren babesean, 8.614 mailegu formalizatu dira, guztira 754 milioi euroko finantzaketa-bolumenerako. Formalizatutako batez besteko zenbatekoa 87.524 € izan da. Industria-sektoreak finantzaketaren % 35 bereganatu du, merkataritza-sektoreak % 23 eta zerbitzuen sektoreak % 15. Enpresaburu autonomoek 2.176 mailegu formalizatu dituzte (35 milioi euro guztira), eta mailegu bakoitzaren batez bestekoa 15.899 eurokoa izan da.

2021ean egindako maileguen berritze aldatzaileek 2020ko formalizazioen % 71ri eragin diote, eta industria-sektoreak hartu du partaidetza-ehuneko handiena, % 47rekin, eta, ondoren, merkataritza-sektoreak, % 25arekin. Ostalaritza-sektoreko maileguen berritze aldatzaileak zenbateko osoaren % 7 izan dira.

2020an hasitako eta 2021ean jarraipena izan duen programaren emaitzek, eragiketen epea luzatzea bezalako helburuak zabalduz, finantzaketa baldintza onetan eskuratzea ahalbidetu dute, pandemiaren murrizketek eragindako salmenten jaitsieraren ondorioz enpresentzako likidezia-arazoak sumatzen ziren uneetan.

2020ko programak 1.000 milioi euroko finantzaketa-bolumena aurreikusten bazuen ere, eta 2021eko programak 500 milioi euroko zenbateko gehigarria aurreikusten bazuen ere, guztira eskainitako guztizkoaren % 51 estali da. Zehazki, 2021ean, guztizkoaren % 16, nahiz eta, esan bezala, programak aukera eman duen 2020an formalizatutako maileguen epea eta gabealdia % 70 luzatzeko.

Elkargi EBBk 2021ean izapidetu eta onartutako finantzaketa-eskaerak, dekretuaren baldintzak betetzen zituztenak, 667 izan dira 90 milioi eurorentzat; beraz, onartutako eragiketak guztizkoaren % 89 izan dira. COVID-19aren eragina arintzeko programen arabera emandako finantzaketari dagokionez, 6.679.693 €-ko dirulaguntzak ordaindu zaizkie enpresei; 3.023.132 € enpresek ordaindutako interesen likidazioei dagozkie, eta 3.656.401 €, berriz, ordaindutako abal-komisioei.

Formalizatutako maileguengatik enpresei Elkargiren bidez emandako birfidantzamenduari dagokionez, EAEko Administrazio Orokorak 2.893.125 € birfidantzatu dizkio Elkargi EBBri 2021ean, ekitaldiaren hasierako aurreikuspenen oso azpitik, 20 milioi €-ko birfidantzamendua aurreikusten baitzuten. Arrazoia da, Elkargirekin formalizatutako Birfidantzamendu Hitzarmenetan jasotako eragiketen estaldura, CERSAren birfidantzamendua osatuz, % 75era arteko birfidantzamendua aurreikusten zuten arren, sozietate horrek hartu duela bere gain ia gehieneko fidantzamendu-muga, bere estatu-programen arabera, elkarren bermerako sozietateekin. Horri guztiari gehitu behar zaio Elkargi EBBk Programaren esparruan formalizatutako mailegu eta abalen zenbatekoa programan eskainitako finantzaketa-bolumenaren oso azpitik egon dela, finantzaketa-eskaera gehiena 2020an estali zelako

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Birfinkatze-hitzarmen berriak	2	2
Hornidura teknikoak indartzeko hitzarmena	1	1
Hitzarmenetik eratorritako kobraezinen ordainketak Hiruhileko ordainketak	4	0
Hitzarmenetik eratorritako kobraezinen ordainketak Hiruhileko ordainketak	1	1



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Autonomo (enpresari eta profesional) eta enpresentzako diru-laguntza, COVID-19aren aurrean, sektore pribatuaren kaudimenean eta zorren murrizketan laguntzeko**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 29koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, zeinaren bidez, autonomoei (enpresaburuei eta profesionali) eta enpresei sektore pribatuaren kaudimenari laguntzeko eta zorpetzea murrizteko zuzeneko laguntzak emateko oinarriak onartzen baitira eta dagokion deialdia egiten.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Arau erregulatzaileria eta deialdia argitaratzea:

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren ekainaren 29ko Agindua: 2021eko uztailaren 2ko EHAA, 130. zk.  
[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/07/s21\\_0130.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/07/s21_0130.shtml)

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren uztailaren 21eko Agindua: 2021eko uztailaren 29ko EHAA, 151. zk.

[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/07/s21\\_0151.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/07/s21_0151.shtml)

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren urriaren 13ko Agindua: 209. zenbakiko EHAA, 2021eko urriaren 20koa

[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/10/s21\\_0209.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/10/s21_0209.shtml)

Webguneko argitalpena: <https://www.euskadi.eus/servicios/1200901>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-deialdi horren bidez, gure autonomia-eremura lekualdatu zen autonomoentzako eta enpresentzako zuzeneko laguntzen COVID lerroa –jasota dagoena, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuaren I. tituluan, Ogasun Ministerioak, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eta Euskal Autonomia Erkidegoak 2021eko maiatzaren 25ean sinatutako hitzarmenaren arabera-

Apirilaren 20ko 6/2021 Errege Lege Dekretuak emandako ahalak baliatuta, kontuan izanda Euskal Autonomia Erkidegoan bereziki kaltetutako beste sektore batzuen jarduerak daudela, dirulaguntzen deialdian sartu ziren Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN 09) kodeetan sailkatutako beste jarduera batzuk, 5/2021 Errege Lege Dekretuaren I. eranskinean sartuta ez daudenak.

Zuzeneko laguntza horien izaera finalista da, alegia, hornitzaileei eta beste hartzekodun batzuei (finantzarioak eta ez-finantzarioak) zorra ordaintzeko eta ordainketak egiteko erabiltzen dira. Baita, autonomoentzat eta hautagarritzat jotzen diren enpresentzat ere egindako kostu finkoak ordaintzeko,



baldin eta 2020ko martxoaren 1etik 2021eko irailaren 30era bitartean sortu badira eta 2021eko martxoaren 13a baino lehenagoko kontratuetatik badatoz.

Deialdiak hiru dirulaguntzen lerro ditu:

Dirulaguntzen 1. Lerroa: PFEZren errentak eratzikitzeko araubidean dauden entitateak, enpresaburu indibidualak eta profesional autonomoak, baldin eta BEZan araubide sinplifikatua edo baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia aplikatzen badute 2019an edo 2020an

Dirulaguntzen 2. Lerroa: 1. Lerroan sartzen ez diren entitateak, enpresaburu indibidualak eta profesional autonomoak, baldin eta, 2020an 10 milioi euroko edo gutxiagoko eragiketa-bolumena izan badute eta 2020an sozietateen gaineko zergan zerga-kontsolidazioko araubidean tributatzen ez badute.

Dirulaguntzen 3. Lerroa: Sozietateen gaineko zergan zerga-kontsolidazioko araubidean tributatzen duten taldeak, eta enpresaburu indibidualak, profesional autonomoak edo entitateak; baldin eta Eragiketen bolumena %30 baino gehiago jaitsi bada 2020an 2019arekin alderatuta -Administrazioak egiaztatuta edo aitortuta-.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Laguntza-programa 267.997.300 eurokoa izan zen; horietatik 50.000.000 € funts propioen kargura izan ziren, eta gainerakoa, 217.997.300 €, Estatuak egindako esleipenaren emaitza izan zen.

Erregistratutako 6.627 eskaeretatik 671k atzera egin zuten, eta guztira 5.956 eskaera onartu ziren.

Eskaerak lerroka eta Lurralde Historikoka banakatzea:

	<u>LH</u>	<u>Emandako zenbatekoa</u>	<u>Onartutako eskaerak</u>	<u>Ukatutako eskaerak</u>	<u>Eskabideak guztira</u>
<b>L1</b>	Guztira	<b>5.640.514,12</b>	<b>2.041</b>	<b>176</b>	<b>2.217</b>
	01	362.760,06	136	15	151
	20	1.787.552,86	641	56	697
	48	3.490.201,20	1.264	105	1.369
<b>L2</b>	Guztira	<b>87.657.643,73</b>	<b>2.663</b>	<b>1.022</b>	<b>3.685</b>
	01	10.895.356,65	323	104	427
	20	35.451.211,03	1.061	352	1.413
	48	41.311.076,05	1.279	566	1.845
<b>L3</b>	Guztira	<b>3.089.474,04</b>	<b>36</b>	<b>18</b>	<b>54</b>
	00	138.560,00	14	6	20
	01	217.913,97	3	6	9
	20	1.181.797,64	8	2	10
	48	1.551.202,43	11	4	15
<b>Guztira</b>	<b>96.387.631,89</b>	<b>4.740</b>	<b>1.216</b>	<b>5.956</b>	



Programa hori nola gauzatu den ikusita, EAEko Administrazioaren funts propioen kontura egindako 50.000.000 euroko zuzkidura soberakintzat jo zen, eta Estatuari 75.000.000 euroko itzulketa partziala egin zitzaion, autonomia-erkidego honi esleitutako zenbatekoaren eta baliatutako zenbatekoaren arteko aldeagatik. Gainerako saldoa gorde egin zen, 2022ko ekainaren 30a baino lehen ebatzi beharreko errekurtsoen balizko estimazioak finantzatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Programa honen azken emaitza aurreko atalean jasotzen dena da. Batetik, laburpena jasotako eskabideena, ukatutakoena eta ebatzitakoena (2021eko Diru-laguntzen Plan Estrategikoan izandako aldaketekin bat). Bestetik, deialdiaren aurrekontu-emaitza.





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**“Non ikusten duzu Europa Euskadin?” Argazki lehiaketaren X. edizioa.**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, «Non ikusten duzu Europa Euskadin ?» argazki-lehiaketaren X. edizioaren deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021004661>

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 17koa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021006146>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

- EAEko gazteei ezagutzera ematea EGEF funtsaren eskualde-garapeneko parte hartzea. Funts horrek EAEko lurraldearen garapen ekonomikoa bultzatzen duten inbertsio-jarduerak, proiektuak eta ekimenak finantzatzen ditu.
- Euskadiko gazteen interesa piztea Europarekin zerikusia duten alderdi eta gaietan, biztanleria-sektore horri egokitutako hizkera erabilia.
- Sare sozialen erabilera finkatzea, gazteen artean Europa eta haren sarea zabaltzeko bitarteko berri gisa.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

**Lortutako emaitzak**

Irekia plataformak, zeinaren bidez lehiaketan aurkeztutako argazkiak jaso ziren, datu hauek izan zituen:

- EGEF2020 etiketarekin aurkeztutako argazkiak: 41
- Baztertutako argazkiak, ezegoki edo errepikatu izanagatik: 2
- Onartutako argazkiak: 39
- Baztertutako argazkiak, irizpideak ez betetzeagatik: 5
- Argazki finalistak: 29

Sare sozialei dagokienez, datu aipagarrienak hauexek:

- Instagrameko irismena: 1320
- Facebookeko irismena: 4689
- Facebookeko argitaraldiak: 4798
- Facebook e Instagrameko jarraitzaile kopurua: 4000
- “Like” kopurua: 3595



Orrialde bien jarraitzaile kopuru bateratua 3.753 da.

Jarduerak iraun duen bitartean, lehiaketaren kontu bakoitzean 23 argitalpen egin dira; batez beste, egunean argitalpen bat, argazkiak aurkezteko epealdian.

Instagramen zein Facebooken gehienetarikoa irakurri den argitalpena irailaren 8an egindakoa izan zen. Bertan argazkiak "Nire carpeta"ren bidez nola igo azaltzen zen. 500 lagun inguruk kontsultatu zuen informazio hori, eta horrek adierazten du, batetik, interesekoa izan zela eta, bestetik, zalantzak sortu zituela prozesuak.

#### **Parte hartzaileen datuak**

Parte hartzearen erregistroak adierazten du 41 argazki igo zirela, 9 pertsonak bidalita (4 emakume eta 5 gizon).

Era berean, guztira 1206 bozka zenbatu dira, 362 pertsonak bidalitakoak.

#### **Aurrekontu-betearazpena**

Programaren dotazioa 3.000 €koa izan da. Ekonomia eta Europako Funtsetako sailburuordearen 2021eko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez, hiru sari eman ziren gauzatan, guztira 1.027,90 €-ko baliodunak.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Urteko argazki lehiaketa bat	1	1